

GURERA

TURISMOA ULERTZEKO
MODU BERRI BAT, DONOSTIAN

Donostia bizitzeko delako.
Gurera hiria zaintzera dator.



01. Atarikoa

Donostia bizirik dagoen hiria da. Egunero gozatzen den, partekatzen den eta zaintzen den hiria da. Azken urteotan, munduko beste hiri askotan bezala, turismoaren fenomenoak gero eta **inpaktu** handiagoa eragin du eguneroko bizitzan.

Hori behar bezala kudeatzea da gaur egun hiriak dituen erronka nagusietako bat. Kontua ez da turismoari uko egitea, baizik eta **etorkizuneko ikuspegia duen planteamendu errealista eta arduratsu** bat egitea, hiriko biztanleen bizi kalitatearen eta hiria bisitatzen dutenen esperientziaren kalitatearen arteko **oreka** bermatuz.

Testuinguru horretan jaio da **Gurera**, Donostiako turismoa kudeatzeko eredu berria.



02. Zer da Gurera?

Gurera turismoa kudeatzeko eredu berria da, **herritarrak** erdigunean ipini eta turismoa **hiriko estrategia orokorrean** txertatzen duena.

Eredu horrek turismoaren jarduera ulertzeko modua aldaraziko du: batez ere sustapena erdigunean jartzen duen planteamendua atzean utzi eta **partaidetzako kudeaketa**

integral eta zeharkako baterantz aurrera egingo dugu. Horrela, turismoak fenomeno isolatua izateari utzi eta hiriko proiektuaren parte bilakatuko da.

Gurera ez da kanpaina puntuala edo aldi baterako ekimena. Gurera **egiteko modu berri bat** da, eta **erantzukidetasunean, lankidetzan, gardentasunean eta entzute aktiboan oinarritzen da.**

03. Zergatik jaio da Gurera?

Turismoa fenomeno global bihurtu da, eta **zuzenki eragiten dio** hirietako **eguneroko bizitzari**. Donostian, zenbait esparrutan nabaritzen da hori, hala nola espazio publikoan, mugikortasunean, etxebizitzan edo ekonomia jardueran.

Hiria aldatzen ari da, eta, harekin batera, baita turismoa ulertzeko modua ere. Egoera horri aurre egiteko, tresna berriak, begirada berriak eta erronkei aurrea hartzen dien kudeaketa bat behar dira.

Gurera helburu irmo batekin jaio da: **turismoa eraldatzea hiriaren eta bertakoen ongizatean laguntzeko**.

Turismoa kudeatzeak berekin dakar, batez ere, **donostiarren alde egitea**.



04. Turismoa ulertzeko modu berria

Gurerak paradigma aldaketa bat proposatzen du hiriaren eta turismoaren arteko harremanean.

Eredu berri horretan, turismoa Donostiako eguneroko bizitzaren parte den errealitate bat izango da, eta **begirada integratzailearekin** kudeatuko da, betiere hiri, gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetako politikekin lerrokatuta.

Planteamendu horrek tokiko bizitzaren eta jarduera turistikoaren arteko **oreka jasangarrirantz** eramango gaitu, bizikidetza indartuko du eta hiriaren nortasuna zainduko du.

05. Gobernantza partekatua eta erantzukidetasuna

Gurera ereduaren oinarri nagusietako bat **gobernantza partekatua** da.

Erabakiak zeharkako moduan hartuko dira, eta turismoarekin zerikusia duten eragile guztien parte hartzearekin:

- Udalak zeharkako begiradarekin zuzenduko du.
- Herritarrek parte hartu eta beren ikuspegia eskainiko dute.
- Turismoaren sektoreak tokiko esparrutik egingo du ekarpena.
- Bisitariak bizikidetza kode berrietara egokituko dira.

Modu horretan, turismoak esparru bakar baten erantzukizuna izateari utzi eta ardura kolektibo bihurtuko da.

06. Donostia bizitzekoa da

Gurerak helburu nagusi argia dauka:
Donostia, bizitzeko hiria.

Eredu horrek **herritarren ongizatea** kokatzen du erdigunean, eta turismoaren kudeaketa baliatzen du **eguneroko bizitza babesteko, bizikidetza indartzeko** eta **bertako nortasunari eusteko**, hori baita Donostia **paregabe** egiten duena.

Hiria zaintzeak esan nahi du bere nortasuna, izaera, bizimodua eta erlazionatzeko modua zaintzea.

07. Datuetan eta gardentasunean oinarritutako kudeaketa

Gurera ereduak **analisietan, adierazleetan eta etengabeko ebaluazioan** oinarritzen den turismoaren kudeaketa sustatzen du.

Barne ditu turismoaren inpaktu erreala neurtu eta garaiz jarduteko aukera ematen duten tresnak, besteak beste, **Turismoaren Behatokia** eta **karga turistikoaren gaitasunaren azterketa**.

Horien emaitza eta adierazleak aldiari behin argitaratuko dira, eta hartzen diren neurriak eta neurri horien inpaktua herritarrei **gardentasunez komunikatuko** zaizkie.

08. Gurera manifestua

Bada toki bat munduan.

Bakarra dena. Gure bihotzetan dagoena. Egutero bizi nahi duguna. Munduan bakarra den Donostia.

Egunerokoa eraikitzen goazen gure bizikidea. Bisitariak irekia baina musikazkoari itxia. Bertakoa baliatzen jartzen duena. Bisitari abegitsuak nahi dituen. Oreak, elkarriketan eta errespetuan.

Eta horretan gaude. Hiri jasangarriago eta bizigarriago bat eraikitze bidean.

Bada postaletatik haratago doan hiri bat.

Argazki eder bat baino gehiago dena. Egutero kotasunean, bizitzaz beterik dagoen hiria.

Gustok zaindu nahi dugun bizikidea. Bisitariak ongi etorriak izatea garrantzitsua izanda ere, tokiko ongizatea lehenesten duen Donostia.

Bada ibilian egingo dugun bide bat.

Erabakietan eta ekintzetan islatzen dena. Turismoak aurrez-aurre jartzen dizkigun erroketak aurre egiteko bidea. Dagoeneko hartu ditugun eta etorkizunean hartzen jarraituko ditugun neurrien bermea duena.

Eta horretarako, bada tresna boteretsu bat. Entzutea eta partekatzea cinarri dituen. Elkarrekin, erabakiak hartzea Udalaren berme instituzionalarekin.

Bada isileko indar bat.

Donostiarron indarra. Askotan agerikoa ez dena, baina hor dagoena: auzolana, elkartasuna eta zaintza. Eta horrek benetako aldaketa ekar dezake.

Ze bada elkarrekin eraiki dezakegun etorkizun bat. Donostia jasangarriago bat. Utopia bat dirudien arren, elkarrekin lan eginez, lortu dezakeguna.

Badugu modu berri bat

Izen bat baino gehiago dena. Jarrera bat. Ikuspegi bat. Bide bat. Donostia zainduko dugunaren promesa.

Guk, donostiarrak, badugu zeresana eta zeregina. Eta horretarako sortu da **Gurera**.



Manifestua

gurera
TURISMOA ULERTZEKO
MODU BERRI BAT, DONOSTIAN

 

donostiagurera.eus

+ Info



09. Gurera konpromisoa



+ Info



10. Donostia zaintzeko adierazle eta neurri zehatzak



+ Info



11. Parte hartzea

Parte hartzea da **Gurera** ereduaren funtsezko oinarrietako bat. Planteamendu berriaren arabera, turismoa ezin da instituziotik bakarrik eraiki; aldiz, herritarren, turismoaren sektorearen eta bisitarien **inplikazio aktiboa** eskatzen du.



+ Info



Gurera **entzute aktiborako** gune errealak sortzen ditu eta parte hartzea sustatzen du, Donostiako turismoaren orainaren eta etorkizunaren inguruko diagnostikoak partekatu, proposamenak jaso eta adostasunak eraikitzeko helburuz.



Proiektuaren webgune ofizialean, herritarrek eta sektoreak honako hauek egin ahal izango dituzte:

- **Gurera Konpromisoa** sinatzea, hiriaren zainketarekiko erantzukidetasunaren seinale moduan.
- **Proposamenak, hausnarketak eta ekarpenak** egitea.
- Donostiako eredu turistikoari buruzko **eztabaidan** aktiboki parte hartzea.

Parte hartzea ez da jardun puntuala izango, baizik eta **etengabeko prozesu ireki eta gardena**, turismoari buruzko eztabaidaren lidergo partekatua indartzeko.

12. Komunikazio gardena

Gurera komunikazio esparru berri bat ekarriko du, funtsezko ideia honetan oinarritua: **lehenik neurriak hartu, eta ondoren komunikatu**.

Informazioa gardentasunez hedatuko da zenbait formatutan, besteak beste, **azaltzeko bideopilulak**, kudeaketa turistikoaren neurri, adierazle eta emaitzak herritarrei hurbiltzeko baliatuko direnak.



13. Gurera: esanahia duen izena

Gurera izenak ereduaren filosofia laburbiltzen du.

Euskaraz, esanahi bikoitza dauka. Alde batetik, “gure erara” esan nahi du, Donostiaren eta donostiarren neurrira egin den turismoa kudeatzeko eredia baita.

Bestalde, “ongi etorri, Gurera” ere bada, hots, hiria bisitatzen duten guztiei bertako bizitzan integratzeko luzatzen zaien gonbidapena, betiere errespetutik eta bizikidetzatik.



Informazio gehiago

Gurera ereduari buruzko informazio guztia eta parte hartzeko inprimakiak hemen daude eskuragarri:

www.donostiagurera.eus

